

duen plan berria

ren 2008-2011 Gestio Planaren helburu estrategietako bat Gipuzkoako gizartearen ongizatea handitzea da

Testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak kirola gizartearen oinarri sendo bat dela uste du eta Gipuzkoako gizartearen garapenaren araberako jarduerak fisikoaren plangintza desberdinak eskaintzea pentsatu du. Horrela bere formazioa, bizi kalitatea eta aisia mantenduko ditu. Helburu honekin, egitasmoaren garapenean kirol azpiegituren materialen Gipuzkoako beharrak beteko dituzten ekintzak ikusiko dira.

Ekipamenduaren sarea

'2008-2011rako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduak' egitasmoak Gipuzkoako gizartearen kirol ohituren aldaketa ikusita, kirol ekipamenduen sarea hobetzeko erraztasunak jarriko ditu, horrela kirol eskariak beteiko dituzten zerbitzuen eskaintza sortuko da.

Helburu hau lortzeko, egitasmo honen barruan hausnartzen den ekintza lineetako bat kirol ekipamenduaren "sare basiko"aren sendotzea da, ba-



tez ere herriko edo eskualdeko izaera dutenak eta teknifikazio eta errendimenduko jarduerak errazteko bideratuta daudenak.

Ekintza linea berdin honetan ere kirol instalakuntzen egokitzea hausnartzen da, kirol eskaintza zabalago baten proiektua aurrera eramanez

edo bertan herritar guztien partaidetza bultzatuz, bereziki kirol jarduerak egiteko zailtasunak dituzten taldeak (hirugarren adineko pertsonak, minusbaliotasunak dituzten pertsonak, 6 eta 14 urte bitarteko gazteak...).

Helburu berdinarekin, eta

ikastetxeetan dauden kirol eremuen kopuru handia ikusita, herritar guztiak hauek erabiltzeko eskubidea izango duten ekintzak bultzako dira.

Atal berezi bat, linea honen barruan, helburu nagusia herritar guztien berreskuratzea edo sustatzea duten ekipamen-

duen sorkuntzari edo egokitzeari berezita dago.

Bestalde, ekintzen beste multzo handian, kirol eremuen eratzea sustatu nahi da, naturan nahiz hirian, izaera ludikoa dutenak eta herritar guztiei zuzenduta daudenak. Iniziatiba hauekin hiriko gunek eta natura kirol jarduerak egiteko aprobetxatzen dira, inguruaren eta naturaren zainketaekin bateragarriak eginez.

Erakunde onuradunak

Gipuzkoako erakunde lokalak subentzio hauen onuradunak izan daitezke, adibidez, udalak, elkarte publikoak, Gipuzkoako kirol elkarteak, mankomunitateak, partzuergoak eta patronatuak.

Egitasmoaren barruan eskola publikoetan aurkitzen diren kirol instalakuntzak sartu daitezke.

Oinarri hauek Gipuzkoako Buletin Ofizialean publikatzen diren egunetik - irailaren 18an argitaratua -, 2008-2011rako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduak egitasmoari heldu nahi diren elkarteak 20 egun naturaleko epea izango dute bertan egoteko eskaera aurkezteko.

2008/2009ko Bruesaren aurkezpena



Agintarien, babesleen, zaleen eta laguntzaileen talde handi baten aurrean aurkeztu zen pasa den astelehenean 2008/2009ko Bruesa San Sebastian Gipuzkoa Basket taldea. Zazpi milioi euroko aurrekontuarekin helburu honetako helburua argi dago: ACB ligan mantentzea. Taldea laguntzeko azaldu ziren agintarien artean Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Jardueretako Diputatuak, Iñaki Galdos, aurkitzen zen. Diputatu Foralak hitz batzuk eduki zituen Bruesako Lehendakariarentzat: " Santos lagunak proiektu hau aurrera ateratzeko lana eginez gain, dirudienez zoologiako ikastaro bat ere egin du. Elkarte koadrupedo bat garelako esan du, lau hanketakoak.. Nire ustez hanka garrantzitsuenak beste hirua dira. Gipuzkoako hainbeste enpresek proiektu honekin bat egiteak hunkigarria da.

Foru Aldundiak paralinpikoak hartu ditu



Pasa den asteartean Gipuzkoako Foru Aldundiak Pekin 2008ko paralinpiadetan parte hartu duten gipuzkoar olinpikoak hartu zituen. Gipuzkoako taldeak sei domina eta bi diploma olinpiko lortu ditu. Richard Oribe, Amador Granado, Ana Rubio, Sara Carracelas, Arkaitz Garzia eta Yolanda Martín Foru Aldundiaren omenaldia jaso zuten. Iñaki Galdos, Kiroletako eta Kanpo Jardueretako Diputatuak, paralinpikoak zoriondu zituen: "oso harro sentitzen gara egin duzuen lanarengatik, Gipuzkoa mundu osoan ordezkatu duzue".